

## Dopina eliteko kirolean

Duela bi urte irakurri nuen dopinari buruzko berri batez baliatuko naiz ondoko lerroak idazteko eta, aldi berean, dopinak nigan sortzen dituen iritziak adierazteko. Albisteak jakinarazten zигun Tourraren garaileak, hots, Froomek, dopinpean jokatu omen zuela; odol-azterketa batek horrela frogatu zuen. Horren ondorioz, txirrindularitzaren mundua hankaz gora geratu zen. Horren harira, neure buruari egiten dizkiodan bi galderatxo plazaratu nahiko nituzke: alde batetik, gertaera harekin nor ari zen dirua irabazten?; eta, bestetik, eliteko kirolariek zergatik hartzen dituzte dopinerako botikak behin eta berriro?

Lehenengo galderari erantzuteko, ez genuke industria farmazeutikoa ahaztu beharko, hura bere etekinen atzetik doalako beti. Industria horrek iragarkiz betetzen ditu hedabideak, eta, horrela, gaurko gizarteak normaltasunez ikusten ditu duela 20-30 urte existitzen ez ziren substantziak; iragarkiek honela esaten digute: "hau hartuz gero, zure gorputza munduko gorputzik ederrena izango da" edo "osasungarriena", eta abar... Zoritxarrez, guk sinesten diegu ezer zalantzan jarri gabe. Tamalez, sinesmen horrek gizartean garrantzia izan du, eta, kirol profesionalari ez ezik, profesionala ez denari ere eragin dio. Gauzak horrela, kirola egiten duen jende gero eta gehiagok dopinerako substantziak hartzen ditu.

Bigarren galderari erantzuna esango nuke gaur egungo gizartearen lehiakortasunarekin oso lotuta dagoela. Ez dugu ahaztu behar gure nagusiak beste era batera bizi zirela; izan ere, edozein gauza egiteko elkarrekin egin behar zuten. Gaur, berriz, bakarrik bizi garela dirudi, eta, era berean, edozein jardueratan edozer egiteko gai gara besteari irabazteko, etengabeko lehian bizi garelako. Lehengo eliteko kirolariak oraingoekin konparatuz gero, ordukoak leialagoak omen ziren; gaurko kirolari batzuei (ez guztiei, jakina!) tranpa egitea ez zaie axola; horrexegatik, debekatutako substantziak hartzen dituzte.

Aipa dezagun gizarteak ere errua duela, gure zaletasunak kirol taldeak tranpa egitera bultzatzen baititu. Eta nire ustez ez da gauza makala. Hau da, kirol-taldeen nagusiek jarraitzaile gehiago lortzeko medikuei eta antolatzaileei dopina erabiltzen uzten diete, beste alde batera begiratzen duten bitartean.

Horrenbestez, honako hau esango dizuet: eliteko dopina geratzera etorri zaigulakoan nago. Hala eta guztiz ere, horren kontra borrokatzeko ahaleginak egiten jarraitu beharko dugu. Horretarako, nire ustez, bai gobernuek bai kirol erakunde guztiek diru gehiago gastatu beharko lukete, dopinaren kontrako ikerketak egiteko. Xedea argi daukat: tranpatiek ez dezatela irabaz. Egungo gizartearen indibidualismoa eta lehiakortasuna, aldiz, hezkuntzaren laguntzarekin baino ez dugu konponduko, eta hori askoz zailagoa da dagoen joera kontuan hartuz gero.

Juanjo